

413.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2021EKO-URRIA



# MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA  
+ GUKA ALDIZKARIA



JUAN LUIS ZABALA

## EUSKARA BIZILEKU

INNOVA  
AZPEITIA

HORTEZ KLINIKAK



Jose Artetxe-5 • 943025955

943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com  
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



**AZKOITIA - KALE NAGUSIA**

Kale Nagusian kokaturiko  
etxebizitza bikaina

Salgai  
**225.000€**

2 gela 66 m<sup>2</sup> 2 bainugela

**AZKOITIA - JULIO URKIXO  
ETORBIDEA**

Etxebizitza ikaragarria Julio  
Urkixo Etorbidean

4 gela 133 m<sup>2</sup> 2 bainugela

Salgai  
**240.000€**



**AZKOITIA - INAZIO IRIARTE  
KALEA**

Eraberritzeko etxea erdigunean  
kokatua

2 gela 60 m<sup>2</sup> 1 bainugela

Salgai  
**105.000€**



**AZKOITIA - INAZIO IRIARTE  
KALEA**

Egoera onean dagoen  
etxebizitza Inazio Iriarte Kalean

3 gela 78 m<sup>2</sup> 1 bainugela

Salgai  
**140.000€**





# MAXIXATZEN 413

2021EKO URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ANDONI ELDUAIEN SORALUZE



## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aitziber Arzallus,  
*Gero-gerokoak*
- 6 **Hitz bitan** Sara Etxaniz,  
Marbellan bizi da
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Jon Andoni  
Martin eta Aitor Arruti Rezabal,  
*Hirurak bat*
- 10 **Iritzia** Juan Ramon Alberdi,  
*Kapitalak*  
Rina Cabeza,  
*Emakume langileon egoera*
- 12 **Erreportajea**  
*Aurreiritziei hortzak erakusteko gai*
- 18 **Iritzia** Kari Alberdi,  
*Arquimedesen printzipioa eta beste  
batzuen amaiera*
- 19 **Iritzi grafikoa** Itxaro Iraeta
- 20 **Erretratua**  
Xebas Larrañaga, eskultorea
- 24 **Bazkidetza eta Zakelmari**
- 25 **Elkarrizketa** Juan Luis Zabala,  
idazlea
- 34 **Plazan bazan**
- 36 **Akordatzen**  
*Gustuko lekuan, aldaparik ez*
- 40 **Klik!** Zezenak afizio
- 44 **Iritzia** Sara Rodriguez,  
*Giza eskubideak, norentzat?*
- 46 **Iritzia** Aitor Arruti Rezabal,  
*Ez gara hain onak*  
**Bertsoa paperean**

MAXIXATZEN

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-85 36 17  
maxixatzen@maxixatzen.eus  
www.maxixatzen.eus

### Erredaktoreburua

Nerea Uranga  
**Erredaktore taldea**  
Aitziber Arzallus  
Andoni Elduaien Soraluze  
Anartz Izagirre  
Nerea Uranga

### Diseinu arduraduna:

Iñaki Martínez Albizu  
**Publizitate arduraduna:**  
Egoitz Azkoitia  
**Zenbaki honetako  
kolaboratzaileak:**  
Jon Andoni Martin  
Juan Ramon Alberdi

Rina Cabeza  
Kari Alberdi  
Itxaro Iraeta  
Sara Rodriguez  
Aitor Arruti Rezabal  
Unai Izagirre

### Inprimategia:

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-706/97  
**ISSN:** 1137-8891  
**Tirada:** 850 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA  
Udala





# PUBLIZITATEA



**ATRASKUA**

**EGUZKI**  
belarrenda  
diestetika  
kozmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 **AZKOITIA**  
Urbilarte 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

Web proiektuak  
Software Ingeniaritza

**elkarmedia()**

info@elkarmedia.eus  
943-85 08 74

**etk**

Informatika Zerbitzuak  
943-02 63 29  
www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa  
santaklara kalea 35 | 943083487  
www.brarkitektura.com



**PB Sport**

bakendi, 7 • 943-02 56 90  
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 08  
**AZKOITIA**



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32  
www.fra-kun.com • azkoitia\_titakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 82


**ETXEZA TABERNA**

Etxeza Etxeoa, Z/G • 943-85 20 31

**artelan**

Toledo Alzonga  
managokalea 1  
tel. 943 85 18 41  
607 79 98 84

- Marroki
- Olio-pintura
- Akwarela
- Pastela-pintura
- Kola-marroki
- Zeramikita
- Pastelino
- Estubiana




**KATTAGORRI ARTEA**

**TALLER ARTISTIKOAK**

OGUZ ETA ARRATZALDEZ: gaste eta koloretan!

kattagorriarte@gmail.com

**674335988**

Zuatzola kafea, 2. Azkoitia



**ALDAKO**

**SARE ETA INFORMATIKA ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA ORDENAGAILU, MUGIKOR ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia  
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76  
aldako.informatica@gmail.com



**IBAIONDO BERRI**  
**53 ETXEBITZA BERRI**

www.aranbarri.com

 **ARANBARRI**

# Gero-gerokoak



AITZIBER ARZALLUS

**B**esteren ahotan ibiltzea ez zaigu inori gustatzen, baina gurea bezalako herri batean, lehenago edo geroago, denoi tokatzen zaigu. Batzuei asko eragiten diete besteen esamesek, edozertarako ausardia galtzeraino. Baina badira komentarioei jaramonik egin gabe, gogoak emandakoa egiten badakitenak. Horretan eredu dira Maria Angeles, Maria Jesus eta Maria Consuelo Domenech ahizpak.

Orain dela egun batzuk ezagutu nituen, ale honetako *Akordatzen?* ataleko erreportajea lantzen ari nintzenean. Beren etxera gonbidatu ninduten, eta harrিতuta utzi ninduten. Gaztetako gorabeherak kontatzen jardun zitzaizkidan, orain dela 50 bat urteko kontuak, haiek 30 bat urte zituztenekoak. Beste garai batzuk ziren haiek: frankismoa puri-purian zegoen eta euskaraz hitz egitea debekatuta; herritarrak sinestunak ziren, eta Elizak esandako guztiari amen egiten zioten; emazte, ama eta etxekoandre izateko betebeharra zuten emakumeek, baina eskubiderik apenas... Domenech ahizpek, ordea, ezarritako arau haien interpretazio librea egiten zuten; eta gainera, gurasoen babesa zeukaten.

Familiagatik galdetu nien. Hamar anai-arreba zirela erantzun zidaten, eta gaur egun lau bizi direla. Beste datu bat ere eman zidaten: anai-arreba guztietatik bakarra ezkondu zela. Atentzioa eman zidan horrek, garai hartan ohikoena gazte ezkondu eta seme-alaba mordo bat munduratzea baitzen. Amak sekula ez omen zituen ezkontzera animatu, inozoak bakarrik ezkontzen zirela eta. Eta amak beti arrazoia izaten duenez, zintzo bete zuten haren esana.

Herrian prakak jantzi zituzten lehendabiziko emakumeak izan ziren, mendirako gona baino erosoagoak zirelako; eta amak josi zizkien prakak, jostuna zelako. Maria Jesusek gidabaimena atera zuenean, berriz, European barrena bidaiatzeari ekin zioten. Maria Jesus, Maria Angeles eta ahizpa gazteena, Encarnita, joaten ziren bidaia horietara. Hiru emakume, auto batean. Jugoslavia ohiraino iritsi ziren. Euskal Herrian eta Espainian barrena antolatzen zituzten goi-mendietako kanpamentuetara ere sarri joaten ziren; neska bakarrenetakoak izaten ziren.

Etxean sekula ez zieten oztoporik jarri, nahi zutena egiteko askatasuna eman zieten, eta gustuko zutena egiteko baliatu zuten. Bazekiten beraien bizimodua ez zela ohikoena, herriko beren adineko emakume gehienena, eta jardungo zuten, baina bost inporta zitzaien. Urteen zamagatik ez balitz, lehengo martxan jarraituko lukete, baina besterik ezean, egindakoaren oroitzenak hor dituzte; lau anai-arrebak egongelan jarri eta sarri berritzen dituzte. Bizitakoaren seinale. Ni ere, badaezpada, saiatu egingo naiz, eta gero-gerokoak. ■■■

**ETXEAN SEKULA EZ  
ZIETEN OZTOPORIK  
JARRI, NAHI ZUTENA  
EGITEKO ASKATASUNA  
EMAN ZIETEN**

# Sara Etxaniz: "Oso hiri kosmopolita da Marbella; guztia posible den burbuila"

**TESTUA:** ANDONI ELDUAIEN SORALUZE

**ARGAZKIA:** UTZITAKOA

Sara Etxaniz (Azkoitia, 1987) duela 13-14 urte joan zen Azkoititik Marbellara (Andaluzia, Espainia) bizitzera. Orain, motorra eta gastronomia uztartu asmoz, jatetxe bat ireki berri du.

## **Marbellan bizi zara egun. Nola hartu zenuen hara joateko erabakia?**

Ustekabeko kontua izan zen. Ikasketak amaitu nituenean, Galesera joan nintzen bidaian, eta han lagun bat ezagutu nuen. Hark aldiaren behin Marbellan egiten zuen lan, eta hara gonbidatu ninduen, Galesen hotz egiten zuela eta. Orduan erabaki nuen Marbellako bizitza ezagutzeko eta probatzea. Senarra ezagutu, lanean hasi eta hona egokitu naiz.

## **Erraza izan al da hara egokitzea?**

Hasieran kostatu egin zitzaidan; izan ere, joan-etorrian dabilen jende ugari bizi da hemen. Behin gustua hartu ondoren, eta trafikora ohituta, ordea, bat gehiago naiz Marbellan.

## **Zer aldaketa nabaritu zenituen Marbellara iritsi zinenean?**

Buru gainean oinetako edo loreontzi bat eraman arren, kalean inork ez dizu kasurik egiten, bakoitza bere munduan bizi da. Era berean, jendeari berdindio nongoa zaren; oso hiri kosmopolita da Marbella; guztia posible den burbuila. Horregatik, jendearekiko konfiantza, lagunarteko uneak, kafe bat lasai hartzea, haurarekin parkera joan eta beste umeekin harremanak egitea... Hori guztia oso zaila da.

## **Zerk harritu zaitu gehien hor?**

Autoek, egia esan. Hona iritsi nintzenean, zer motatako ibilgailuak ikusten nituen zenbatzen aritzen nintzen; zenbat Lamborgini, Ferrari, Bentley...

## **Zer gomendio emango zenioke azkoitiar bati Marbellara joaten denerako?**

Gure jatetxe-kafetegi berria bisitatzeko esango nioke lehenik [kar, kar, kar]. Horrez gain, jende asko joan ohi da Puerto Banusera; hura bisitatzeko gomendatu nioke.

## **Jatetxe berri bat ireki duzu.**

Orain dela bi hilabete zabaldu genuen. Senarrak motorraren munduan diharduenez, motor kontuei lotutako jatetxe bat ireki dugu, oso gune onean. Autoen hagin eksklusiboak ikus daitezkeen erakustoki bat ere jarri dugu; izan ere, luxuzko autoen tailer asko ditugu inguruan. Ekitaldiak ere egiten ditugu, gertu ditugu-eta Porsche klubak.

## **Azkoitian ere utziko zenituen atsegin zenituen gauzak. Zeren falta sumatzen duzu?**

Aita eta familia, nola ez. Ama eta anaia Marbellan bizi dira orain, baina aitarekin zuzeneko harremana sarriago izatea gustatuko litzaidake. Egoten gara tarteka, baina ez da berdina. Halere, badakit Azkoitia ondo zaintzen ari dela, herri zaindari aparta dela. Bere hutsunea sentitzen dut, baita harremana dudaren lagun batzuen ere. Gainera, faltan botatzen dut kalean jendeari kasu egitea, jendea ezagutzeko...

## **Marbella oso leku turistikoa da. Nolako da turistekin bizi behar izatea?**

Udan ikaragarri tratatzen dituzte bai errepideak eta bai aparkalekuak; edozertarako ilarak sortzen dira segituan. Urteak dira abuztuan Puerto Banusera joan ez gairela, jende anabasa ikaragarria pilatzen baita.

## **Lehen Marbellan turista gehiago ibiltzen zela diote askok. Horrela al da?**

Marbella beti izan da gune turistikoa. Abuztuan urteroko giroa eta zalaparta egoten da. Gainera, askok lana etxetik egin dezaketenez, gero eta gehiagok erabakitzen du bertan bizitzeko galditza; urte guztian eguzkia bermatuta dute, ekitaldiak ere bai... Gune berriak eraiki eta eraiki ari dira Marbellan.

## **Azkoitira sarri etortzen al zara?**

Urtean bi edo hiru aldiz saiatzen gara horra joaten. Ni ohitua nago Azkoitira, baina nire senarrak atsegin du horko natura, terrazan lasai egotea, gastronomia eta jendea. Gainera, bere amona ere euskalduna da, bilbotarra, eta horregatik, Euskal Herriarekiko lotura du. ■■■



# Hirurak bat

---

**ARGAZKIA:** JON ANDONI MARTIN

**TESTUA:** AITOR ARRUTI REZABAL

---

Iluna, argia eta ohe bat hirutan.  
Iluna estatikoa da, etzana, egonaldiaren ikur.  
Argia bizia da, mugimendua, taupada du akuilu.  
Ohea bien arteko zubia da, atsedenaren eta jolasaren jargoia.  
Bizitza bat hiru fasetan: jaio, bizi, hil. ■■■







# Kapitalak

**B**idaiatzea hain modan dagoen garaiotan, ez natorkizue herrialde ezberdinetako hiriburuak aipatzeraz; ezta, erlijio kristauak galbidetzat jotzen dituen zazpi bizio edo bekatuak zerrendatzeraz ere. Geure bilakatu zaizkigun jabetza motak hartu nahi ditut kontuan. Gugan hezurmamituta aurkitzen diren ogasuna, jakintza eta prestigioa. Hauek direlako, azken finean, berdintzat jotzen dugun gizartearen baitako arrakala sakontzen dutenak.

Pierre Bourdieu, soziologoak zionez, gizartearen baitan hiru kapital mota eraikitzen dira, zeintzuen arabera, botere sinbolikoa ezartzen den: zenbat eta botere sinboliko gehiago eduki, are eta biolentzia sinboliko bortitzagoa ezartzeko aukera egoten da. Horretarako, noski, gizarteak osotasunean

onartu behar du kapital horien indarra. Kapital horiek, ekonomikoa, kulturala eta soziala dira.

Kapital ekonomikoari dagokionez, nahiko nabarmena da gure gizartearen duen ahalmena. Dirurik gabe ezer gutxi egin dezakegu. Hilaren bukaerara iritsi ezinik dagoena eta dirutza edukitzeagatik ahalik eta zerga gutxien ordaindu nahi duena, biak daude ugazaba berari so: bata, gutxi duelako; bestea, ahalik eta gehien mantentzeko asmoz. Kapital mota honen biolentzia sinbolikoa nabarmena da: behartsuak eta aberatsak bereizten ditu. Eskerrak ilusioa eta bizipoza ez dauden berari erabat lotuak: egunsenti edo ilunabar liluragarriak, oraingo, dohainik dira.

Kapital kulturala, aldiz, pertsona orok duen jakintzari lotua dago eta biolentzia

sinboliko bortitza sorrarazteko gai da. Hizkuntza da, besteak beste, nabarmenki ezartzen duena. Hitz egiteko erraztasun eza, azentua, lotsa. Euskaldunon gisan, hizkuntza gutxitua dugunon artean anitzegi gertatzen da. Sarritan, euskaraz erdipurdi aritzen dena animatu egiten dugu. Ikasten ari delako, zailtasunak dituelako, edo oso "jatorrak" garelako, euskaraz egindako akatsak normaltzat hartzen ditugu. Aldiz, gu beste hizkuntza batean deseroso mintzatzen bagara, beste hizkuntza horrek ezarritako biolentzia sinbolikoa onartu egiten dugu eta txikitu egiten gara, lotsatu, kikildu. Geure hizkuntzari ukatutako garrantzia besteari areagotzen diogulako.

Kapital soziala aipatzerakoan, ekonomiarekin lotzeko joera gailentzen zaigu: zenbat eta diru

## HAUXE BAI JENEROAI!



## ERREMATEA



RINA CABEZA

## Emakume langileen egoera

**M**aiatzean eskualdeko emakumeen sektore proletarizatuenen egoeraren hurbilpen bat izan genuen Urola Erdiko Itaiaren eskutik, bertan eskualdeko emakumeak lan merkatu feminizatuan daudela, baldintza kaskarretan gauzatzen dutela beren jarduera eta asko kontraturik gabe daudela azaldu zuten. Gaur-gaurkoz, zentro kapitalistako emakume langileen gehiengoak soldatapeko lanean dihardugu, eta horrek ez gaitu etxeko lanetatik askatu, kontrakoa baizik; modu arruntean esanda, bi lanaldi bete behar izatera pasatu gara.

Horregatik, emakume langileok biziko dugun etorkizunaren ezaugarri nagusia esplotazio estruktural basatia izango da. Aurretik genituen baldintza horiek guztiak oraindik ere okerrago bilakatuko dira, hala nola lan ezegonkorrak, nahikoak ez diren soldatak... Horren adibide garbia dugu Azkoitiko egoitzan pasatzen ari den dena, lan baldintza eskasak, egoiliar guztiak artatzeko denbora falta, instituzioen utzigabekeria... Emakume langileen interesak lehen lerroan jarrita, haien beharrak asetzen dituen borroka eta erremintak sortzea dagokigu, langileengatik, egoiliarrengatik eta denongatik. ■■■

gehiago eduki, onartuagoak sozialki. Alta, ez da beti horrela izaten. "Zorra zor, lepoa lodi" esaldia asmatu zuenak ez zuen sos gehiegi edukiko, baina nork igarriko zion? Hor datza kapital sozialaren oinarria: marka, estiloa edo modaren bidezko talde sozial jakin baten partaidetza lortzea. Ondorioz, sozialki ezarritako premisa horietan ahokatzeko ez denari biolentzia sinbolikoa ezartzen zaio: bigarren mailakotzat hartzen da. Alabaina, kasu honetan ere premisa edo arau horiek bi aldetatik onartu behar dira: ezartzen dituen eta ezarpena jasotzen duena. Haatik, moda kontua hain aldakorra izanik, ez da beti uste bezain nabarmena izaten. Adibide gisa, gertakari bat azalduko dizuet:

Anek, bere mutil-laguna den Jon aurkeztu nahi dio amonari.

Mutila ponposo jantzi da zitarako: gurasoek oparitutako markako nikia, modako zapatilak eta, azken urtebetean aurreztutakoarekin erositako prakak ditu soinean. Abegitsu hartu ditu andreak, eta arratsaldeko solasaldiaren ondoren, Jon etxerako moduko mutila dela iruditu zaio: ederra, langilea eta zentzuzkoa. Alde egiterakoan, amonak Ane bere gelara eraman du eta, eskupekoa luzatuz, honakoa esan dio: "Oraindik gazteak zarete eta gauza asko egiteko beta duzue, baina horretara iritsi arte, tori eta praka berriak erosiezazkiozu zure mutilari, tamaina horretan apurtutako arroparekin ezin daiteke kalera irten!".

Bada, hori: zein arau onartu, halako emaitza izango dugula. ■■■



# Aurreiritziei hortzak erakusteko gai

26 urte daramatza Gureak enpresak Azkoitiko industrialdean, eta ordutik desgaitasunen baten duten eskualdeko dozenaka herritar aritu dira bertan lanean. Maxixatzenek herriko lantegiko arduradunekin eta urte luzez bertan lanean daramaten beharginekin hitz egin du.

Testua: **Anartz Izagirre.**  
Argazkiak: **Anartz Izagirre**  
eta **utzitakoak.**

**G**ipuzkoan adimen desgaitasuna nahiz ahalmen desgaitasuna duten herritarrentzako, erreferente bilakatu da Gureak euskal enpresa taldea azken urteetan. 1975. urtean ekin zion industria ibilbideari Gureakek —orduan, bereziki, adimen desgaitasuna zutenei zuzendurik zegoen jarduna— eta urratsez urrats, hamaika dira enpresa sortu zenetik hona zerbitzuen dibertsifikazioan zein espezializazioan eta beste hainbat eremutan izan dituen aldaketak.

Urola eskualdeko beste hainbat txokotan nola, Azkoitian ere ibilbide oparoa izan du Gureakek hastapenetatik gaur arte. Juan Ramon Tolosa *Tolo* da Azkoitiko lantegia ireki zutenetik lanean jarraitzen duen beharginetako bat. Tailerreko enkargatua da egun, eta gertutik bizi izan du enpresaren bilakaera: “1995eko irailean hasi ginen Azkoitiko tailerrean lanean. Udako oporretatik bueltan, Lasaoko lantegia itxi egin zuten, eta hona ekarri gintuzten. 40 bat langile-edo izango ginen orduan”, azaldu du Tolok. Haren arabera, Azkoitira etorri zirenean “oso handia” gelditzen zitzairen pabilioia: “Bi pisuko lantegi batean geunden Lasaon, eta 1.500 metro koadro dituen eremu batera etorri ginen. Oso handia gelditzen zitzaigun guztia, eta hasieran, tailerra beteago zegoela irudikatzeko kaxak-eta jartzen genituen lurrean, bestela galdu egiten baikinena”.

Ordutik, errotik aldatu dira Gureak, bere osotasunean, nahiz Azkoitiko lantegia. Olatz Madariaga Gureaken komunikazio arduradunaren arabera, “asko” hazi da enpresa, eta egun, guztira, 6.000 pertsona inguruk lan egiten dute enpresa talde osoan. Ildo horretatik, Azkoitiko lantegiaren hazkundea “paraleloa” izan dela dio Madariagak: “Gizartearen nahiz pertsonen beharrek eragin dute





enpresa hazten joatea". 6.000 langile horietatik ia 130 dira Azkoitian lanean dihardutenak, eta horietatik gehienak, eskualdeko beharginak dira. Orain, Alex Zubizarreta da lantegiko arduraduna, eta industria jarduera osoa automoziora bideratzen dutela dio hark: "Autoen argiztapeneko kableatuak eta konektoreak egiten ditugu. Horrez gain, klaxon sistemetarako tresnak ere egiten ditugu". Egun, esaterako, Nissan enpresarentzako proiektu batean murgilduta daude.

Bestalde, Azkoitiko industrialdeko lantegiaz gain, Gureakek hainbat atal dituela nabarmendu du Madariagak: "Gureakek alderdi industrialak izateaz gain, beste hainbat atal ere baditu; adibidez, zerbitzuak, marketinga eta *Itinerary* deiturikoa. Azken hori da

langileen ibilbide guztia kudeatzen duen saila”. Zubizarretak Azkoititik sortu diren *implant*-ak nabarmendu ditu: “Eremu barruan sortzen diren lerro berriak dira *implant*-ak; lerro horiek Gureakenak dira, baina bezeroaren enpresa barruan gaudela esan nahi du”. Hainbat dira Urola eskualdean sortu diren *implant*-ak; adibidez, Eroskin, Lasaoko gasolindegian nahiz Zumaiako Otezuri egoitzan eratu dira.

### **Langileen garapena, gertutik**

Enpresa bera ez ezik, Gureaken giza taldearen osaera ere errotik aldatu da sortu zenetik hona. Haien webgunean dauden datuen arabera, 2020an %27 ziren adimen urritasuna zutenak, eta %25 desgaitasun fisikoren bat zutenak. Buruko gaixotasunen bat dutenak ere %25 ziren, %7 zentzumen gaitasuna zutenak eta %16 desgaitasunik gabekoak. Zubizarretaren arabera, langile bakoitzak bere ibilbidea du, eta tailerrean arduradun bat egoten da pertsona horien jarraipena egiteko. Eneko Rajado Azkoitiko enpresan ekoitzi gabeko denbora kudeatzen duen laguntzailea da, eta haren arabera, “gertutik” jarraitzen dituzte langileak: “Galdetzen diegu ea gustura al dauden tailerrean, zer egin nahiko luketen... Batzuek esaten dizute gustatuko litzaiekela goizean beste lekuren batean lan egitea, eta arratsaldean, tailerrean aritzea; horretarako dago *Pauso Berriak* programa”. Madariagaren arabera, “pertsonalizatua” da bakoitzaren ibilbidea: “Nahi dena da langile bakoitzari egokitzen zaion ibilbidea sortzea, beren nahien arabera. Orduan, formakuntza eskaintzen zaie beraiek nahi dutena lortzeko”.

Bestalde, jendeak Gureakekiko duen iritziaz galdetuta, Zubizarretak dio “ezjakintasun handia” dagoela jendartearen: “Lantegian ikastetxeetako nahiz lantegietako bisitak egon izan direnean, harrituta gelditu dira Gureakekin”. Bat dator Rajado: “Askotan tokatu zaigu praktikak egitera etorri den jendea, eta atetik sartu orduko txundituta gelditzen dira egoerarekin. Jende askok pentsatzen du langileak hona marrazkiak egitera-eta etortzen direla, baina ez da hala”.

### **Pandemia, oztopo handia**

Gureaken kolektibo zaurgarrietako hainbat pertsonak lan egiten dutenez, koronabirusak eragindako pandemiak bereziki kolpatu du enpresa azken bi urteetan. Egun, langile guztiak lanean presentzialki ari dira, baina oraindik ere zorrotz betetzen dituzte osasun eta segurtasun neurriak. Zubizarretaren arabera, “kaosa” eragin zuen gaitzak: “Langile asko arrisku egoeran zeudenak ziren, eta horrek egoera zailtzen zuen. Pixkanaka hasi ginen lanean: Osalanek zehaztutako neurriekin, maskarekin eta guanteekin lanean, plastikoekin lan eremuak banatzen...”. Madariagak nabarmendu duenez, pandemiak enpresa guztiei eragin badie ere, Gureaken kasuan handiagoa izan da eragina: “Pertsona zaurgarri asko daude Gureaken, eta horregatik kudeaketan lan handia egin behar izan da”.

### **Gureak zabaltzea xede**

Zubizarretak azaldu duenez, enpresaren erronketako bat da aurrera begira Gureaken jarduna Azkoitian ezagutaraztea. Izan ere,

**AZKOITIKO  
LANTEGIAREN  
HAZKUNDEA  
“PARALELOA” IZAN  
DELA DIO MADARIAGAK**

**ZUBIZARRETAK DIO  
“EZJAKINTASUN  
HANDIA” DAGOELA  
JENDARTEAN  
GUREAKEN INGURUAN**



Ezkerrean, Idoia Sudupe, Jon Fernandez eta Henar Sudupe. Eskuinean, Gureaken Azkoitiko lantegiaren irudi zahar bat.

haren arabera ez da “horrenbeste” ezagutzen: “Ni legazpiarra naiz izatez, eta Goierrin, adibidez, ikusgarritasun aldetik lan handia egin da. Beharbada izan daiteke eskualdeko hainbat enpresarentzat lan egin izan delako; adibidez, CAFentzat, Irizarrentzat edo Orklirentzat. Han eskualdeko jende gehiena enpresa handi horietan banatuta dago, eta nahi ala ez, denek entzun dute Gureakek zer egiten duen. Hemen agian ez dago ikusgarritasun asko eskualdeko *implant* gutxiago daudelako”.

Tolo ere bat dator Zubizarretarekin: “Nik uste ikusgarritasunaren kontua hein handi batean gure errua ere izan daitekeela, ez dugulako jakin hemen egiten duguna kanpoan erakusten. Bestalde, iruditzen zait jendeak zer begiradarekin begiratzen duen ere aldea dagoela. Guk langileak ez ditugu tratatzen desgaitasuna duten pertsonak balira bezala; ez dugu ikusten zer ezin duten egin, zer egin dezaketen baizik. Jendearen begiek, ordea, ez dute osotasun hori”. Rajado ere ados dago: “Harrigarria da hemengo langileek zer-nolako diziplina duten, zein puntualak diren... Gainera, beraientzako lantokia jendearekin sozializatzeko gunea ere bada, batzuek bikotea, kuadrillakoak eta abar dituzte hemen”.

### **Hiru azkoitiar, hiru ibilbide**

Herriko lantegian beharrean aritzen diren hiru dira Jon Fernandez (Azkoitia, 1984), Idoia Sudupe (Azkoitia, 1974) eta Henar Sudupe (Azkoitia, 1984). Hirurek hainbat urte daramatzate Gureaken lanean, eta bakoitzak bere ibilbide propioa izan du enpresan.

Fernandezen kasuan, 2006. urtean heldu zen Gureak enpresara. Horren aurretik, Ingeniaritza Informatikoko lizentziatura ikasi zuen unibertsitatean, eta txikitatik hauteman zioten desgaitasun bat medio, Gureaken lan egiten hasi zen. Lehenik, tailerrean kurtsoak egin zituen, baina gasolindegian eta supermerkatuan ere aritu izan da lanean. Duela sei urte berriro itzuli zen tailerrera. “Gauza asko egin izan ditut hemen; izan ere, denerako prest egon behar duzu.

Gainera, lan berriak ikasteko aukera ere ematen digute, eta halako aukerak aprobetxatu egin behar dira”.

Azkoitiarrak nabarmendu duenez, Gureaken inguruan jendeak uste duena eta benetan dena oso desberdina da: “Jendeak galdetu izan dit ea hona siesta egitera etortzen al garen, margotzera, marraztera... Guk egiten duguna ez dute lan bezala ikusten. Jende hori hona etortzera gonbidatuko nuke, ikus dezaten egiten dugun lana nolakoa den”. Dena den, Fernandezek azaldu du jendeari ez diola “kasurik egiten”, futboleko epaile lanak egiten dituenen bezala; izan ere, 2004-2005 denboralditik Gureakeko lana epaile lanekin uztartzen du azkoitiarrak, eta aurten, Nafarroan ari da zeregin horretan: “Epaile zarenen ere gauza asko entzun behar izaten dituzu, baina zeure eginbeharren hain zentratuta zaudenean, ez duzu beste ezer entzuten”.

Idoia Suduperen kasuan, ia-ia hasieratik dabil Azkoitiko tailerren lanean. 1997an lur hartu zuen bertan, eta ordutik buru-belarri lanean jardun du. “Makinekin” lan egiten duela dio azkoitiarrak, eta “oso gustura” aritu dela urte hauetan guztietan: “Asko gustatzen zait hemen lan egitea, eta denekin oso ondo moldatzen naiz. Ez naiz ondo gogoratzen lanean hasi nintzenean hau nolakoa zen, baina bai orain baino jende gutxiago geundela lanean”. Bestalde, tailerren ez ezik Eroski txikiko okindegian ere lan egindakoa da: “Ogia egiten nuen Eroskin, baina jendea presaka ibiltzen zen alde batera eta bestera, eta tailerren lasaiago nago. Okindegian lanean ari nintzela, gainera, eskua erre nuen behin, txapa oso beroa baitzegoen”. Horrez gain, Idoiak bikotea ere lanean aurkitu zuen: Iban. “2016tik edo gaude Iban eta ni batera, eta harekin askotan joaten naiz afaltzera eta. Oso harreman ona daukagu”.

Henar Sdupeke ez daramatza Idoiak bezainbeste urte Gureaken, baina hura ere denboraldi luze aritu da lantegian. “Astelehenetik ostiralera etortzen naiz lanera, eta hemendik ateratzen naizenean, bostetan, etxera joaten naiz meriendatzera”. Aisialdian, berriz, zumba egitea du gustuko Henarrek, baina pandemia dela-eta jada ez da klaseetara joaten: “Nazkatuta nago koronabirusarekin, une oro maskararekin ibili behar dudalako, eta ezin dudalako zumba egitera joan”. Bestalde bere izebarekin Koxka tabernara muztio bat hartzera joatea ere “oso gogoko” duela dio azkoitiarrak. Gureaken “lagun asko” egin dituela azaldu du Henarrek, eta zaharren egoitzan ere lan egin izan duela, garbitasun alorrean: “Egoitzan baino gusturago nago lantegian, han ez nituelako lagun asko eta hemen bai”. Henarrek argi du Gureaken lanean jarraitzea nahi duela: “Oso gustura nago hemen, eta hemen jarraituko dut aurrerantzean”.







# "HAURREK MARKATZEN DUTE ERRITMOA"



Duela hiru urte ireki zuen Garazi Arakistainek (Azkoitia, 1993) *Garazi Sormen Tailerrak*. 3 eta 12 urte bitarteko haurrei dago bideratuta, bereziki, Arakistainen zentroa. Hain zuzen ere, sormen tailerretan egiten dutena zer den eta gunerako dituen asmoak zein diren azaldu ditu azkoitiarrak.

## **Zerk eraman zintuen *Garazi Sormen Tailerrak* irekitzera?**

Gizarte hezitzailea naiz, eta gune hau ireki aurretik ere haurrekin egin nuen lan. Arte terapiako ikasketak amaitu nituenean, Udane Juaristik marrazketako klaseak emateko bera ordezkatu al nuen galdetu zidan, urteetan bere ikaslea nintzen eta. Ilusioa egin zidan bere deiak, eta baiezkoa eman nion. Egun batean, ordea, umeei beraiek esan zidaten nirea izango zen gune propio bat zergatik ez nuen irekitzen. Irudikatzen hasi nintzen, eta azkenean nire zentro propioa irekitzea erabaki nuen.

## **Zein dira gunerako dituzun asmoak?**

Haurrak ondo sentituko diren espazioa sortzea nahi izan dut beti. Ongi sentitzean eta lasai gaudenean konektatzen da sormenarekin; orduan prest egon ohi gara material desberdinak probatzeko. Guraso batzuk lehenetsuna ematen diete beren seme-alabak beste gauza batzuetan trebatzeari. Haurrek gaur egun duten tentsioa ikusita, ordea, iruditzen zait sormen gunea arnagune bat izan daitekeela beraientzat. Umeei gune hau eskaintzea alxor txiki bat ematea da; izan ere, umetan asko gozatuko nukeen gunea zatekeela iruditzen zait.

## **Zer egiten dute haurrek sormen tailerretan?**

Idea bat eskaintzen diet ikasleei astero: eskulanak, marrazteko teknika zehatz bat... Nik proposatutakotik abiatzen dira edo haurrei beraiei interesatzen zaiena egitea erabakitzen dute; izan ere, ume batzuk beren ideiak izaten dituzte, eta materiala, espazioa nahiz laguntza nahikoa dituzte lanerako. Birziklatutako materiala eta margoak, akrilikoa, arkatza eta oihala erabiltzen ditugu lan egiteko.

## **Zer metodologia jarraitzen duzu?**

Ikasleen beharretatik ikasteko gogoia sortzea da nire asmoa. Derrigortuta ikasten denean, ez zaio jarraipenik egiten ikasgaiari. Materialari beldurra galtzea ere nahi dut, heldu askori entzun baitiot marrazten lehen gaizki moldatzen zelako gehiago ez duela marraztu. Beren irizpideekin, baina ikasleak sormenean murgiltzea nahi dut. Haurrek markatzen dute erritmoa. Modu horretan, haur bakoitzak ezagutuko du zer gustatzen zaien eta horretarako bidea zein den. Dena den, aurrera egiteko ikasleak une bakoitzean behar dituen teknikak azaltzen saiatzen naiz.

## **Zein dira sormen tailerreko ikasleek lortzen dituzten gaitasunak?**

Materialari beldurra galtzea da lortzen den gaitasun garrantzitsua. Esperimentazioa ona dela barneratu behar dute, horrela sortzen baitira norbere irizpideak. Azken finean, garrantzitsua da norberari gustatzea. Arteak lagunduko die ikasleei lasaitzen eta emozioekin konektatzen, eta hemendik ateratzen diren ikasleek gaitasun hori betirako izatea nahi nuke.

## **Aurrera begira zertan sakondu nahiko zenuke?**

Proiektuak goia jo zuen COVID-19a iritsi aurretik, eta orduko egoerara iristeko, orain proiektua indartu nahi dut. Era berean, haurrekin banakako lanketa gehiago egitea gustatuko litzaidake. Teknikak ikastera bideratu beharrean, gune hau arte terapiara gehiago bideratzea gustatuko litzaidake. Orain ere badu kutsu hori, baina gehiago sakondu nahi dut.

## **Zenbat ikasle dituzu?**

Hamar pertsonako taldeak egiten ditut. Astelehenerdik ostiralera bitartean eskaintzen ditut klaseak, eta astean klase bat eskaini ohi dut, bi ordukoa, 17:30etik 19:30era. Adinez desberdinak diren ikasleak elkarrekin ditut talde berean, baina beti ere oreka mantentzen ahalegintzen naiz.

# Arquimedes printzipioa eta beste batzuen amaiera



KARI ALBERDI

**Z**ak azaldu zenidan Arquimedesen printzipioarena, uretan edo ohetan gertatzen dena, nola gorputz berri bat bertan sartzen denean lehendik han zegoena ateratzen dan".

Arquimedes – Anari

Bazen behin, urrutiko lurralde batean, Arkimedes deituriko pentsalari bat.

Bada orain, hurbileko lurralde batean, Anari deituriko bat zer pentsa ematen ari zaidana.

Honela hasten dira kondaira gehienak, baita Arkimedesena ere. Grezia deituriko urrutiko lurralde batean bazen Hieron izeneko errege mesfidati bat. Urre kopuru bat bildu eta koroa fabrikatzaile bati eskaera zehatz bat egin zion: berak emandako urre guztia koroa eder batean bihurtzea. Eskaerak baldintza bakarra zuen, koroak soilik urrezkoa izan behar zuen. Nonbait, fabrikatzailearen lanarekin fidatu ez, eta Arkimedes pentsalariarekin jarri zen kontaktuan Hieron erregea. "Koroa honek beste metalen bat ere badik, fabrikatzailea urrearen zati batekin gelditu duk...", errege baten erregekeriak. Edo ez. Arkimedesek jasotako agindua oraindik eta zehatzagoak ziren: ditxosozko koroa urre puruz eginda zegoen ala ez frogatzea, bitxiari inongo harramazkarik egin gabe.

Buruhausteari erantzunik ezin emanda, hiriko termetan




bainu bat hartzea erabaki zuen Arkimedesek. Larruazaleko poroak eta buruko ideiak irekitzeko asmoarekin, antza. Eta bai zabaldu ere. Bainuan bere gorputza sartzean urak gainezka egin zuela erreparatu baitzuen. Segidan, bainutik atera eta uraren mailak berriro behera egiten zuela ohartu zen. Hara! Kondairak dioenez, jarraian larrugorritan termetatik irten eta "Eureka!" garraxi eginez ikusi zuten Arkimedes hirian barrena. Istorio guztiek izan behar dute txispa apur bat.

Behaketa harekin gure pentsalariak honakoa ondorioztatu zuen: koroaren bolumena jakin zezakeela uretan sartuta; izan ere, likidoan bitxia sartzean mugituko zen urak koroaren bolumen berdina izango zuen. Edo Anariren hitzetan: *nola gorputz berri bat bertan sartzen denean, lehendik han zegoena*

*ateratzen dan.* Behin frogapenak burututa, koroa fabrikatzailearen iruzurra azaleratu zen. Erregeak eman zion urre kopuruaren bolumena eta amaierako koroaren bolumenak ez ziren berdinak, batak besteak baino ur gehiago mugitu baitzuen. Ondorioz, urreaz gain, bazen beste metalen bat koroaren komposizioan.

Erregeak bazuen, beraz, fabrikatzaileaz ez fidatzeko arrazoirik, geuk ere istorio xeble horren ziurtasunaz zalantzak izateko ditugunak bezalaxe. Ziurtasunak eta zalantza betea dago zientziaren ibilbidea ere. Badu zer irakatsi eta zer ikasi. Zer sartu eta zer atera.

Istorioak istorio eta iruzurrak iruzur, *uretan edo ohetan* zientzia sartzen denean ateratzen den gauza bakarra, lehendik han zegoen ezjakintasuna da. ■



# "Beti zerbait berria egin nahian nabil"

## XEBAS LARRAÑAGA ESKULTOREA

Haurra zenerako sortzen zien "harridura" herriko eraikinetako irudiek eta formek egun eskultorea den Xebas Larrañagari (Azkoitia, 1962). Gaur ere haurtzaroan zuen senak markatzen dio hartu beharreko norabidea zein den. Lanerako gustuko ditu "bakardadea" eta "sosegua", baita berritasuna ere. Artistak argia eman die bere pentsakerari eta ikuskerari.

Testua: **Andoni Elduaien Soraluze**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **Andoni Elduaien Soraluze eta utzitakoak**.


**U**me-umetatik marraztu izan duen horietakoa da Xebas Larrañaga. "Bideak" eraman du egun dena izatera. "Eskolan ez nintzen ona, baina marrazten onena. Ni murgildu egiten nintzen orduan, dena ematen nuen marrazterakoan. Inork erakutsi gabe arkatza hartu, eta jardun egiten nuen". Eskultoreak behin baino gehiagotan adierazi du, haurtzaroan "harridura" sortzen ziela herrian ikusitako formek eta irudiek. "Elizan ikusitako harriek harritzen ninduten. 3 edo 4 urte nituenerako, banekien, nolabait, harria menditik zetorrela, eta taila edo zutabe bat zuhaitzetik. Halere, material haiei itxura nork eta nola ematen zien galdetzen nion askotan neure buruari, eta horrek harritzen ninduen".

Bakarrik egin ohi du lan, eta bere burua "soseguz" hartu zalea da Larrañaga. "Bakardadean lan egiten dut. Elgoibarren [Gipuzkoa] dudan lantegian sartuta egon ohi naiz aste osoan. Ez nahiz protagonismo zalea. Nire ibilbideari ikusle moduan begiratzen baitiot, eta nire lanak egile bezala ikusteagatik egiten dut lan

modu honetan". Halaber, sentimenduekin eta sentsazioekin jolastu ohi du Larrañagak, baita gauza arrazionalekin ere. "Egiten ari naizena zergatik eta nola egin behar dudan erabaki behar izaten dut. Lanerako onena gauzak lasaitasunez hartzea izaten da, bakean egotea eta behin hasitakoan burutaziorik ez izatea". Gainera, lanak "bizirik" sentitzen ditu Larrañagak eskuetan dituenean; behin amaitutakoan, ordea, "beste zerbait" bihurtzen dira. "Kostatu egiten zait lanak amaitzea; izan ere, orduan sortzen dira damuak, beste era batera egiteko ideiak... Lortzen dudana lana hobeto egiteko gai naizela sentitzen dut barruan". Larrañagak, gainera, badu halako lotura bat egurrarekin; benetan du gustuko egurra lantzea. "Egurak lasaitu egiten nau, komunikazioa sentitzen dut. Era berean, enborrarekin eta zuhaitzarekin anaitasuna dudala sentitzen dut; izan ere, pentsatu baino gehiago sentitu egiten dut askotan. Zuhaitza izandako zati bati bigarren bizi bat eman nahi izaten diot".

Edozein lanetan da garrantzitsua gustura egotea, eta hala azpimarratu du azkoitiarrak. Bera eta berritasuna lokarri beretik lotuta doazela aitortu du. "Lanean gustura egotea da eskultore







batek izan dezakeen unerik onena; izan ere, jardunak ekartzen ditu talentua eta abilezia. Egiten duzuna hurrengoan hobeto egin nahi izaten da beti, baina egiten ez dakidana egiten saiatzen naiz ni. Ez du emoziorik dakidana egiteak. Beti zerbait berria egin nahian nabil". Hein batean, barruan irudikatutako lanen bila ibili ohi da. "Lana egiten hasi aurretik irudikatu egiten dut buruan egin behar dudana. Lana amaitutakoan sentitzen dudana eta egiten hasi aurretik barruan sentitutakoa gauza bera badira, sentazio onak izan ohi ditut. Aldiz, lana barruan irudikatutakoa bezala ateratzen ez bada, tortura da". Hitz hori erabili du eskultoreak, bera ez baita inoiz "gustura" gelditzen amaierako emaitzarekin. "Irudikatutakoa %100ean lortzea ezinezkoa da bizitzako esparru ia guztietan, baina, horren bila ibili beharra dago. Urteekin neure buruarekiko kritiko bihurtu naiz, eta horregatik, gailur batera iritsi naizela sentitzen dudanean, beste gailur handiago baten bila abiatzen naiz".

### Kulturgileak gustuko

Larrañagak lan ugari egin ditu bere ibilbidean zehar, eta horietako bat baino gehiago ikus daitezke

Azkoitian. Halere, baditu bat bestea baino gustukoagoak dituen lanak. "Kuttunenak ditudan lanak Azpeitian daude. Batetik, *Amatasuna* eskultura, ama izatearen zentzua modurik handienean ikus daitekeelako, eta bestetik, Diego Garcia eskultura. Garcia eta biok batera hazitakoak gara, umetatik ezagutzen ginen elkar eta sentimendurekin egindako lana izan zen".

Begiko ditu Larrañagak, era berean, euskal kulturgileen lanak egitea. Oraindik amaitu ez baditu ere, esku artean ditu Mikel Laboa eta Benito Lertxundi abeslarien buztin lanak. Mikel Laboaren lana egitea 2009an bururatu zitzaion, baina ez zen hasi 2013ra arte. "Herritar bezala, gustuko dut Mikel Laboa. Buruan bueltaka nuen haren eskultura egiteko ideia, eta edozein unetan agertzen zitzaidan aurrean bere irudia, izan kalean edota etxean. Hortaz, pentsatu nuen lana egin edo ahaztu beharra nuela. Laboak merezi zuela pentsatuta, ordea, egitea erabaki nuen".

Benito Lertxundiren lanari ekitea "kuriosoa" izan zen azkoitiarrarentzat. "Laboarena hasi eta gero, pentsatu nuen bizirik zegoen pertsonaia bat landu behar nuela. Euskal Herriko paisaiek Laboaren eta Lertxundiren doinuak eta ahotsak dituzte niretzat, eta horregatik erabaki nuen Lertxundirekin hastea". Orioko (Gipuzkoa) udaletxera jo zuen Larrañagak lehenik, eta han

## Xebas Larrañaga

- **Adina:** 59 urte.
- **Ikasketak:** autodidakta.
- **Lanbidea:** artista plastikoa.
- **Eskulturgilea ez banintz...** sukaldaria.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** terraza batean, kafe batekin, liburu bat lasai irakurtzea.



lortu zuen oriotarrarekin harremanetan jartzea. Anekdotak ere badu horren inguruan: "Benito Lertxundi aurrean nuela egin nuen eskultura. Gainera, musikariak berak jarduten zuen askotan buztina lantzen. Une horiek historikoak dira niretzat". Jakina, Larrañagak bideoan du gordeta Lertxundi bere eskultura lantzen ikus daitekeen unea. Lertxundik azkoitiarrari 'Hori ni naiz Xebas, ez dut gehiago ukituko' esan zion arte landu zuten buztina Orion.

Oraindik orain, hilero bi lan horien buztinari mantenu lana egiten jarraitzen du Larrañagak, baina, orain, amaitu egin nahi ditu biak. "Mikel Laboaren eta Benito Lertxundiren lanak hartu eta amaitu egin nahi ditut. Epe motzera horiek dira egin nahi ditudan lanak". Lan handi horiek egiteko gain, baina, badu egunero zerbait egiteko. Gaurkoan, herrian dituen eskulturek bisitatu ditu, egiteko hori ere eskultore baten egitekoen zerrendan sartzen baita. ■■■

**GARAJE**

# AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK  
KONPONTZEN DITUGU**

**Astelehenetik ostiralera:  
08:30-12:30 / 14:30-19:00**

**Larunbatean itxita**

**Classic**

San Joan, Axiri 13  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)

Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

**OSKAR BERNAL GOMEZ**  
tailleraxiri@gmail.com





**Floreaiga**  
SALESTARI IKASTETXEA  
FAMILIAK ETA IKASTETXEA,  
BAT EGINDA HEZTEN  
KONFIANTZAREN PEDAGOGIA  
*Zatoz, ezagutu gaitzazu  
Besteak zurekin saletarren  
giltza konfiantza dogelako!*

formatz o/g-AZKOITIA  
943-85 32 43 • floreaiga@floreaiga.eus  
www.floreaiga.eus

# ZERBER BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALDI GUZTIAKO GAIAK AURKITUKO DITUZU GURE BURDINGIAN. INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA, MURGINTZA, ERIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA, TOPLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN "ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA, 39 - 20770 AZKOITIA - 638 35 31 25  
www.ferreteriazerber.com

# zurt

OPORTUNITATEK  
SANDWICHAK ETA HAMBURGUESAK  
ENTZALAK  
RIZOLAK  
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZIA ZABALA  
TELHARZA HANDEA ZUZENERO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

# LATZ

TABERNA

ARTISAU PIZDAK  
ENTZALAK  
PINTURAK  
PLATER KONBINATURAK  
RIZOLAK  
OGITARTERDIK  
ARDO ESKANTZIA ZABALA  
SOMU ETA ARDO EKUP  
PAREGADAK  
LAN JUNGLETAN BEI DI ARTEBENTIA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



**JARRI HEMEN ZURE RAGARKIA!**



# NON DAGO ZAKELMARI?



Abuztuko Maxizatzen aldizkarian **Zakelari** non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 40. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxizatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Patxi Azpitarte** bazkideari egokitu zaito Herrixen merkatarri elkarteak emandako **50 euroko erosketa bonoa**. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxizatzenek Zakelari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna urriaren 18a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo [maxizatzen@maxizatzen.eus](mailto:maxizatzen@maxizatzen.eus) helbide elektronikora.



*Komertzizko txikiak herrixen esentziaz*





# "Euskara nahi gabe ere bihurtu da nire bizilekua"

## JUAN LUIS ZABALA IDAZLEA

Ia 40 urte dira berak idatzitako ipuin batekin literatur sari bat irabazi zuela. Orduetik, hainbat liburu kaleratu ditu azkoitiarrak. Urte askoan kazetaritza izan du lanbidea, eta egun, itzultzaile ari da. Idatzi eta lan euskaraz egin ditu.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Andoni Elduaien Soraluze**.



**X**esteronekoa da Juan Luis Zabala (Azkoitia, 1963), Iru Arten bizitakoa eta hazitakoa. Bizitza erdia baino gehiago darama Azkoititik kanpo bizitzen. Jaioterrira etortzen denetan, ahal duenean, ohitura du Urrategira bizikletan joateko. "Txikitan etxe ondoan neukan errepide hori, eta askotan igotzen nuen. Orain ere, Azkoitira etorritakoa, askotan egiten dut. Urrategiri badiot halako atxikimendu bat; gustatzen zait izena, gustatzen zait lekua". Aizpurutxo eta Agineta ere gogoko ditu: "Aizpurutxon Erdiko Benta izan zuten gurasoek, eta han bizi ziren".

Ia lau hamarkada dira ipuin batekin literatur sari bat irabazi zuela. Sari hari esker idazle gisa "armairutik atera" zela dio Zabalak, idatzi egiten zuela esateko lotsa galdu baitzuen. Orduetik, hainbat sari jaso ditu, baita hainbat liburu kaleratu ere. Urte askoan jardun du kazetari lanetan: sorreratik *Euskaldunon Egunkarian*, gero *Eguneron*, eta jardun hori utzi aurretik, *Berrian*; beti, Kultura sailetan. Egun, itzultzaile lanetan ari da, bere kasa. Kazetari baino idazle sentitzen da azkoitiarra.

**36 urte dira lehenengo liburu kaleratu zenuela, Zigarrokin ziztrin baten azken keak. 1984ko Azkue saria jaso zenuen lan horri esker, eta 1985ean argitaratu zuten. Nola oroitzen duzu?**

Beno, lehenago Tene Mujika saria irabazi nuen ipuin batekin, eta lan hura liburu kolektibo batean argitaratu zen; Iñigo Aranbarrik ere bazuen ipuin bat liburu horretan. Sari horrekin armairutik irten nintzen. Ordura arte, lotsa ematen zidan idatzi egiten nuela esateak, eta sari hura irabazita, idatzi egiten nuela esan nien etxekoei eta lagunei. Gero, nobela bat izan zen ipuin haren jarraipena, eta harekin irabazi nuen Azkue saria; sari potoloa. Orduetik aurrera, lanak argitaratzeko erraztasunak izan ditut; zorte hori eduki dut.

**Zeure kasa hasi al zinen idazten?**

Bai. Akordatzen naizenez, orduko OHoko 7. eta 8. mailan *Senda* izeneko liburu batzuekin ikasten

genuen literatura; Iñaki Aldekoa, Miguel Delibes, Selma Lagerlöf, Quevedo, Pio Baroja eta beste askoren ipuinak, poemak eta nobela zatiak izaten ziren. Oso gustuko nituen, ikusten nuelako hor bazela beste mundu bat, igoal, nire inguruan ez neukana, eta hala hasi nintzen zaletzen. Horrez gain, uste dut inportantea izan zela gure etxean periodikoa jaso izana; izan ere, orduan, gure inguruko etxe askotan ez zen jasotzen. Ni oso txikia nintzenean, *La Voz de España* jasotzen zuten etxean, eta gero, *El Diario Vasco*. Aita zenak nahi izaten zuen eduki, eta amak ere irakurtzen zuen. Liburu asko ez zeuden gure etxean, baina periodikoa bai. Uste dut horrek ere asko lagundu zidala irakurzaletasuna pizten. Liburuekiko edota literaturarekiko zaletasuna eskolan hartu nuen gerora, baina orduan, gaztelaniaz ikasten genuen dena. Gero, zer karrera egin ikasi erabaki behar izan nuen, eta duda eduki nuen Filologia Hispanikoaren eta Euskal Filologiaren artean. Literaturatik gertuen zegoen karrera zelako ikasi nahi nuen filologia, baina berdin zitzaidan bata ala beste, bi hizkuntzak bainekizkien; seguru asko, gaztelaniaz euskaraz baino hobeto alfabetatuta nengoen, baina ez zitzaidan inporta zer hizkuntza aukeratu, ez zen kontu ideologikoa niretzat. Dena den, iruditu zitzaidan lanpostua bilatzeko euskarak gehiago balioko zidala; izan ere, garai hartan, Franco hil eta gero, euskalduntzea eta alfabetatzea oso indartuta zeuden, eta ematen zuen etorkizuna euskarazkoa izango zela. Orain, horri erreparatuta, nahiko oker nengoen, baina ez naiz damutzen Euskal Filologia hautatu izanaz. Euskal Filologia ikasitakoan hasi nintzen euskaraz idazten.

**Orduetik euskaraz bakarrik idatzi al duzu?**

Bai, artikulu bat edo beste kenduta, euskaraz idatzi dut. Euskal Filologia ikasten hasi baino lehen ez nengoen euskaraz alfabetatuta. BUPeko [BBB] hirugarren mailara arte ez nuen euskara eskolarik izan. Maila hartan, euskara ikasgaia Mikel Goikoetxearekin izan genuen. Ordura arte, euskaraz ez nuen ez irakurri, ez idatzi, ez ezer, eta unibertsitatean hasi nintzen horretan.





**Hamaika liburu kaleratu dituzu, literatura genero desberdinak landuz: narratiba, biografia, poesia, gazte literatura, itzulpena, komikia... Zer falta zaizu?**

Falta? Gidoiak idaztea gustatuko litzaidake, baina hori norberaren esku ez dago askotan. Ez zait egokitu gidoiak idaztea, eta gehiegi ere ez dut bilatu. Bestela, momentuan momentuko generoan idatzi dut, nahi nuenaren arabera. Beharbada, neureena-edo nobela sentitzen dut, baina nobela idaztea ez da erraza horretarako liberatuta ez bazaude. Agian, denbora libre gehiago izanda, nobela gehiago idatziko nituzkeen, baina genero bakoitzak dauka bere aberastasuna eta bere ekarpena.

**Liburu gutxi batzuk enkarguz egin dituzu, beste denak zeure kabuz.**

Maltzetaren [*Maltzeta, soinu bete bihotz*] eta Jexux Artzeren [*Jesus Mari Artze, ttakunaren esku isila*]

biografiak izan dira enkarguzkoak, baita Euskaltzaindiaren historiaren [*Euskaltzaindia, euskararen 100 urteko laguna*] komiki liburua ere. Baina beste guztiak neuk sortutakoak dira, eta asko bizi izandakoaren araberako lanak dira. Adibidez, *Galdu arte* Gaztetxearen esperientzian oinarrituta dago, eta *Gora Euzkadi* eta *Txistu eta biok* liburuak kazetari moduan bizi izandakoan; heldutasuna deitzen diogun fase horretara sartzeak dakartzan gorabeherekin eta horrelako kontuekin egindakoak dira. Azkenean, bizitzak berak eramaten zaitu idazten duzuna idaztera.

**Teknologiak urte hauetan guztietan izan duen aldaketa izugarria izan da. Horrek idazterakoan eragin al dizu?**

Nik ez dut nabaritu. Noski, gogoratzen naiz idazten hasi nintzenean ez zegoela oraindik ordenagailurik, eta gero hasi ziren lehenengo Tipexak –huts egiteko aukera txiki bat ematen



**"EUSKAL FILOGIA IKASTEN HASI BAINO LEHEN EZ NENGOEN EUSKARAZ ALFABETATUTA"**

**"AGIAN, DENBORA LIBRE GEHIAGO IZANDA, NOBELA GEHIAGO IDATZIKO NITUZKEEN"**

**"EUSKARAREN PRESENTZIA AZALEAN GORA EGITEN ARI DA, BAINA SAKONEAN BEHERA"**

zuen horrek-. Ondoren etorri zen idazteko makina elektrikoa, eta harekin ezabatzeko eta idatzitakoa berriz moldatzeko aukera handiagoa zegoen. Eta gero etorri ziren ordenagailuak. Erraztasunak izateaz aparte, orain errazago idazten da, beharbada; denbora gutxiago behar da idazteko, argitaratzea ere erraztu egin da, eta horrek ekarri du liburuak pisua galtzea nolabait. Lehen, liburu bat argitaratzea askoz lan zailagoa zen bai idazlearentzat, bai argitaletxearentzat, eta orduan liburuak ere balio handiagoa zeukan. Egun arindu egin da hori, eta orain "liburu bat argitaratu dut" esatea ez da lehen esatea bezala. Orain dela 34 urte "liburu bat argitaratu dut esatea" gauza harrigarria zen, edo ez zen edozeinek egiteko gauza bat; ez dut esango gaur egun edozeinek egiten duenik, baina erraztasun askoz handiagoak daude. Ez dakit idaztea bera edo idazten dena bera zenbaiteraino aldatu den. Garai batean, Anjel Lertxundik-eta esaten zuten idazteko modu horrek idazten dena ere aldatuko zuela. Nik ez dut nabaritzen, baina egongo dira azterketak.

**Euskarazko literaturaren ekoizpena igo egin da. Euskal literaturan zer aurrerapauso eman direla esango zenuke, eman baldin badira?**

Saizarbitoriak beti esaten du, euskarazko nobelak behar zirelako egin zela bera idazle. Aurrerapauso handiak eman dira, eta irabazi da, batez ere, aukeran, dibertsitatean. Orain, garai batean lantzen ez ziren generoak lantzen dira normaltasun osoz. Gainera, idazle on asko sortu dira eta sortzen dira, eta garai batean ez zegoen nolabaiteko jarraipen bat eta ziurtasun bat sortu da. Gu idazten hasi ginenean, nolabait, gu baino zaharragoek-eta gazteok mimatzen gintuzten, bazegoelako halako zalantza bat euskal literaturaren etorkizunarekiko; mimatzeko behar bat sumatzen zen. Gaur egun, gaindituta dago hori: idazleak sortzen dira, eta ez dago zalantzarik. Beti bezala, baina, arazoa da horien lana zenbateraino zabaltzen den, zenbateraino kontsumitzen edo irakurtzen den. Horretan ere aurrera egin da; izan ere, orain, irakurle klubak daude, lehen baino irakurle gehiago dago. Baina oraindik ere, argitaratzen den guztia kontuan hartuta, irakurleak ez dira idazleok nahiko genukeen kopurura iristen, eta oihartzuna ere ez da oso handia. Alde txar bat ere bada: liburuak orain lehenago ahanzen dira. Orain dela 30 urte euskal literaturaren mundua txikiagoa zen, eta liburuak gehiago irauten zuten, presentzia



gehiago zuten mundu horren barruan. Orain, mundu hori handitu egin da, baina liburuak ere askoz gehiago dira eta berehala ahanzten dira. Azken finean, hori aldaketa on baten ondorioa da; ontzat jo beharko dugu.

### **Hainbat literatura sari jaso dituzu. Zertarako balio dute literatura sariek?**

Lehenengo sariak armairutik irteteko eta idazten nuena erakuts nezakeela sinesteko balio izan zidan. Literatura sariek lotsa gainditzeko, idaztera animatzeko nahiz literaturaren munduan sartzeko balio dezakete. Jakin egin behar da, baita ere, irabazten ez denean erlatibizatzen eta hori ondo eramaten. Denoi gertatu zaigu lan bat aurkeztea, eta itxaropen handiena zeneukanean, saririk gabe gelditzea. Kasu batzuetan, berriz, dirua da sariek ematen dutena. Esaterako, *Txistu eta biok*-en kasuan, agian, ez neukan sari baten beharrik konfiantza hartzeko edo oihartzuna izateko, baina kasu hartan ekonomikoki lagundu zidan sariak [2015eko Kutxa Irun Hiria Eleberri saria eta 2017an Zilarrezko Euskadi Saria].

Literatura sariak laguntzak dira. Askotan, baina, zalantzan jartzen da hori ote den literaturari eta idazleoi laguntzeko modurik egokiena, eta hori eztabaidagarria da. Seguru asko, gaur egun dauden sari asko birmoldatu egin beharko lirakeke, baina nire kasuan, zalantzarik gabe, laguntza handia izan dira momentu batzuetan.

### **Kazetaritzan egin duzu lan urte askoan. Idazlea edo kazetaria izan zara lehenago?**

Ni idazle sentitzen naiz kazetari baino gehiago. Neuk nahi nuena idatzita soldata ateratzea edo bizitzea ezinezkoa izango zela pentsatuta egin nintzen kazetari. Neurri handi batean, kasualitatez. *Euskaldunon Egunkariaren* sorrerako jendea kasualitatez ezagutu nuen 1990ko udako topaketa batean, eta ondorioz, kazetariak prestatzeko ikastaro batetara joan nintzen. Ia-ia pentsatu gabe sartu nintzen *Egunkarian*, eta gero, ja, itxi zutenera arte jardun nuen han lanean. Kazetaritzaren alderdi asko oso interesgarriak iruditzen zaizkit, baina ni kazetari baino gehiago idazle sentitu izan naiz. Nire benetako afizioa literatura da.

### **Sorreratik, 1990eko abendutik, itxi zutenera arte Euskaldunon Egunkarian aritu zinen. Segidan, Eguneron, eta kazetaritza utzi arte, Berrian. Nola gogoratzen dituzu urte haiek?**

*Egunkariaren* oso oroitzapen ona daukat, hasiera-eta gogorra izan bazen ere. Hasiera nahiko urduria izan zen: lehenengo egunetan, oso larri

ibiltzen ginen egunkariaren itxierarekin, hanka sartzek izaten ziren, baita hutsegite larri samarrak ere. Handik denbora batera, ordea, egoera mendea hartua nuela konturatu nintzen, eta poz handia izan zen hori niretzako. Gainera, *Egunkariaren* sorrerak onarpen handia izan zuen gure mundutxoan, euskararen mundutxoan. Akordatzen naiz zorionak ematera etorri zela Koldo Izagirre, eta lehenengo zenbakia atera zenean, xanpaina eraman zuela Txillardegik. Poz handia izan zen halako poza ematen zuen proiektu batean lana egiten genuela ikustea. Gero, gainera, niri balio izan zidan euskal kulturaren mundua ezagutzeko, idazleak batez ere, eta alde horretatik oso aberatsa izan zen. *Egunkariatik* eta gero *Berriatik* belaunaldi askotako kazetariak pasatu dira, eta oso gustura nago ezagutu ditudan kazetari horiek izan dudana harremanarekin; hori oso inportantea izan da. Niretzako oso polita izan da jende horrekin lan egitea.

### **Beti aritu zara Kultura sailean?**

Astebete egin nuen Ekonomia sailean, eta beste astebete kiroletan, 1997ko Euskal Herriko Itzulia lantzen, Pello Aiestaranekin. Bi aste horiek kenduta, beste denak Kultura sailean egin ditut.

### **Kazetari aritu zinen garaian, ez al zenuen tentaziorik izan beste sailean batean lan egiteko?**

Ez, ez dut horretarako tentaziorik eduki, eta ez zuten ni beste sail batera bideratzeko tentaziorik izan. Aldaketen aurrean nahiko marmartia nintzen, eta beste sail batera joanez gero, seguituan hasten nintzen marmarrean. Nahiko marmar egiten nuen kulturako gaiekin, nahiko kritikoa nintzen heltzen zitzaizkigun gaiekin... Politika sailean edo egon izan banintz ja... Hasieratik, kulturaren ikusi ninduten arduradunek eta neuk ere han ikusi dut neure burua.

### **Euskal Filologia ikasi zenuen. Zer da euskara zuretzako?**

Unibertsitateko ikasketak egiten hasi arte, ez nintzen inoiz euskaltzale sentitu. Gainera, batzuetan, kontra egiteagatik bazen ere, tentatzen ninduten euskararen aurkako adierazpen batzuek. Ez nintzen haien alde jartzen, baina batzuetan ulertzen nituen euskararen kontrako adierazpenak eta. Ez neukan batere kontzientziarik. Euskaraz hazi nintzen, eta euskaraz hitz egiten nuen lagun gehienekin, baina gure belaunaldiko kideok-eta -1963an jaioa naiz ni- erdaraz hitz egiten hasi ginen, eskolaren eraginez, erdaldunen eraginez, giroaren eraginez... Gure aurreko belaunaldietako





euskaldunek euskaraz egiten zuten Azkoitian, baina gurea euskaldunen artean erdaraz egiten hasi zen. Ikastolako ikasleek euskaraz egiten zuten, eta gu horrekin salbatu ginen; gazteagoei esker eutsi genion euskarari. Euskaltzaletasuna filologia egiten hasi nintzenean sortu zitzaidan niri. Ondoren, Donostian konturatu nintzen Euskal Herrian euskara nola zegoen benetan; han euskara ez zen Azkoitian bezala, bizirik eta leku guztietan zegoen hizkuntza bat. Orduan hasi nintzen etxeko hizkuntzarekiko atxikimendua sentitzen. Gainera, Euskal Filologian ezagutu nituen nolabait euskaltzaletasunaren historia, Euskaltzaindiaren sortzaileak –Mitxelena, Txillardeg...– eta euskal idazleen zein euskal literaturaren historia; orduan konturatu nintzen zer lan egin zuten Ikastolaren sortzaileek eta. Orain, Eusko Jaurlaritzan sortu aurreko edota euskara ofiziala egin aurreko hamarkadetan lan egin zutenen bidearekin oso lotuta sentitzen naiz, miresmen handia diet. Nolabait, horiek dira euskararen inguruko nire erreferenteak, eta nire mundua da hori, neurri batean. Izan ere, ni euskaraz hazia naiz, filologia ikasi nuenetik ikasketak eta lana euskaraz egin ditut, euskaldunez inguratuta bizi naiz, eta, seguru asko,

euskaraz horrela eta ia-ia erdararik gabe bizi den jende gutxi egongo da gizartean. Nahi gabe ere, euskara nire bizilekua bihurtu da, nire ingurua, eta batzuetan, kezka ere ematen dit hain euskaltzalea izateak, dena ikuspegi horretatik ikustea ere ez da-eta ona. Batzuetan, igoal, kezkatu ere egiten nau ez ote naizen, komatxoeren artean esanda, euskararen taliban bat.

#### **Ez al zaizu iruditzen euskararen aldeko militantzi hori gastatu egin dela?**

Gaur egun eskola nahiko euskaldundua da, badago euskarazko telebista, badago euskarazko egunkaria, eta igoal, gazteek ez dute ikusten edo gazteak ez dira jabetzen hori nola lortu den, zer bide egin duen euskarak egoera okerrago batetik horretara iristeko. Gainera, gazteak beti du errebelatzeko edo kontra egiteko nolabaiteko joera. Baina euskaraz ikasi badu, Euskal Telebista beti hor izan badu, gure gaztaroan ez ziren leihoak izan baditu beti... Gaurko gazteek, igoal, ez dute ikusten euskara benetan zer egoera larrian dagoen. Iruditzen zait euskararen presentzia azalean gora egiten ari dela, baina sakonean behera. Bai presentzia errealean, bai kalitatean asko ari da galtzen: adierazkortasunean, biziatasunean asko ari da galtzen, eta azalean ari



da gelditzen. Azalean badu presentzia, eta horrek pentsarazten du salbatuta eta ondo dagoela, baina sakonean, ez dut esango ustelduta, baina gaixotzen hasita dago; igoyal, gehiegizko hitzak dira baina... Gainera, konturatzen naiz euskara kultoak, alfabetatuak, oso presentzia gutxi duela gizartean. Herri euskaldunetan presentzia handiagoa du euskarak erderak baino, baina kultur kontsumoan edo erabilera alfabetatuan ez dago ohiturarik, eta gainera, neurri handi batean, kezkatu egiten nauen euskara alfabetatuaren edo jantziaren kontrako joera bat dago. Nik ulertzen dut azkoitiarrek oso maite dutela *Azkoittiko euskerie*, eta nik ere bai, baina badago halako lotsa edo kontrako zerbait euskara kultoarekiko edo alfabetatuarekiko. Ondo iruditzen zait hemen azkoitiarrez hitz egitea, ondo irudituko litzaidake zenbait tokitan idaztea ere. Iruditzen zait, baina, askotan bat euskalduna sentitzen dela lagunartean eta familian euskaraz hitz egitearekin, baina gero pelikulak eta serieak ikusteko, irakurtzeko, maila batetik gorako adierazpenetarako... erdara duela nagusi. Euskara hor ari da pixka bat bere lekua galtzen.

**Orain, itzulpengitza duzu lanbide.**

Bai, horretan ari naiz modu autonomoan, eta oraingoz, lana iristen zait. Nahiko eroso egiten

zait etxetik lana egitea, eta alde horretatik, gustura nago. Denetik itzultzea egokitzen zait; testu batzuk interesgarriak dira eta beste batzuk ez. Baina lanbidea da, eta gustura nago.

**Proiektu berririk ba al duzu esku artean?**

Orain dela urte eta erdi bukatutzat eman nuen aurreko bospasei urteetan idatzitako poemekin osatutako liburu bat. Nahiz eta poema desberdinak izan, elkarrekin joateko modukoak zirela irudituko zitzaidan, bazutelako halako sustrai komun bat edo. Susa argialetxera bidali nuen lana, eta datorren urtean argitaratuko zutela esan zidaten. *Mina hartzeko ere* du izenburua. Hori gurasoek esaten ziguten zerbait arriskutsua egiten ari ginela ikusitakoan: “Ez egin hori, mina hartzeko ere”. Liburu horretako poemetan asko lantzen ditut itzulpen literariorik gabeko esaldiak. Uste dut horrelako esakerak galtzen ari direla, eta nik badiet horrelako atxikimendu bat. Amak esaten zidan beste bat hau da: “*Itto behar parrez*”. Orain, “deskojonatu” edo “lehertu” esango genukeen. Iruditzen zait poesiaren indar bat hizkuntza dela, eta euskal poesian ez dut ikusten horretarako joera handirik, eta alde horretatik, liburu horrek egin dezake bere ekarpentxoak. Ni gustura gelditu naiz egindako lanarekin. ■■■

# PIZTU Herrixe

30€ren  
**TRUKE**  
60€  
erosketetarako


10 euroko sei txartel jasoko dituzu, bakoitza sektore ezberdinean erabiltzeko.





## Sarea

Arrain hanek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeke: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina nondik hasika da? Zein zirkuitutatik joan behar du? Lau dituzu aukeran.



MARIPURTZILI  
POZIK ETZULI  
ZARA ESKOLARA,  
EZTA?



## Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zara. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



## Zaku Lasterketa

Lehen iruditik bigarreneko bosposai segundoko aldea besterik ez dago, baina tarte horretan gauza osko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Dikusten al dituzu?



## Mezu gordeak

Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioten jakingo duzu. Esaldi horietako bat esatera zahar bat da, zein da?

1 \_\_\_\_\_

2 \_\_\_\_\_

3 \_\_\_\_\_

4 \_\_\_\_\_

ALFABETOA																									
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X		
Y	Z	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	+	-	*	/	=	<	>	>	<	>	<	>		

## Hamabostekoa

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuine ez dira erabat simetrikoak. Bila itzazu bien artean dauden aldeak Hamabost dira guztira.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eu/](http://www.plazanbazan.eu/)



# Gustuko lekuan, aldaparik ez

## TESTUA ETA ARGAZKIAK:

AITZIBER ARZALLUS

Monte Perdido (3.355 metro), Pirinioetako mendi ezaguna. Azken urte eta erdian zenbat azkoitiar igoko ote ziren haren tontorrera. Izan ere, mendizaletasuna goraldian den garaiotan, ia edonoren eskura dagoen plana da asteburu pasa Pirinioetara joatea. Duela 70 urte, ez. Baina orduan ere herrian baziren mendizaleak, baita Pirinioetarako joera zutenak ere, baita emakumeak ere. Maria Angeles Domenech (Azkoitia, 1940) zen haietako bat, Monte Perdido tontorra zapaldu zuen lehendabiziko emakume azkoitiarra. Duela 62 urte izan zen hori, 1959an hain zuten; 19 urte zituen Domenechek. Harrezkero, hamaika bider joan da inguru haietara, eta beste hamaika lekutara, bere garaiko emakumeei omen zegokienari jaramon handirik egin gabe. Nonbait, Elizak ezarritako arauak eta mugak estuegiak egiten zitzaizkion azkoitiarrari.

Herriko familia arrunt bateko alaba zen Maria Angeles. Ama Donostiako Alde Zaharrekoa zuen eta aita Katalunian jaioa, baina azkoitiarra. Hamar anai-arreba ziren etxean, nahiz eta horietako bat oso umea zela hil. Herrian aski ezaguna zen Eustakia *Erribera* amona zuten. Eustakiak gaztetan Bartzelonara joan behar izan zuen neskame, eta han ezagutu zuen bere senarra izango zena; hortik datorkie Domenech abizena.

"Gure aita han jaio zen, baina denbora gutxira aitona gaixotu egin zen, eta familia guztia hartu eta Azkoitira bueltatzea erabaki zuen amonak, senarra zaintzeko eta seme-alabak hazteko hau leku erosoagoa irudituta". Herrira bueltan, denda zabaldu zuen Eustakiak, denetatik saltzen zuten horietakoa: etxean egindako errokilak, karameluak, egunkariak... Gerora, Maria Angelesek eta gainontzeko anai-arrebek makina bat ordu sartu zituzten denda hartan lanean.

Gaur egun, hamar anai-arrebetatik lau bizi dira: Maria Angeles, Maria Jesus, Maria Consuelo eta Salvador. Harreman estua dute; erreportaje hau egiteko Aizkibel kaleko etxean kazetariarekin jarritako hitzordura ere laurak azaldu dira. Maria Angelesek eta Maria Jesusek eman dituzte azalpen gehienak, baina kontakizunari adi egon dira Maria Consuelo eta Salvador, bidean lagatzen dituzten xehetasunak eransteako.

Atzo gertatutakoak balira bezalaxe kontatzen dituzte duela bost, sei eta zazpi hamarkadako istorioak.

**"IZARRAITZEN ONDO  
IBILTZEN DENAK,  
PIRINIOETAN IBILTZEKO  
ARAZORIK EZ LUKE  
IZAN BEHAR"**


Protagonistak beti eurak, gaztetan ere anai-arrebek elkarrekin ibiltzeko joera handia baitzuten. "Ez denok batera, denda zaindu egin behar izaten genuelako; batzuetan batzuk eta besteetan besteak, ahal genuen bezala", argitu du Maria Angelesek. Hori bai, dendetik libre zuten tarte bakoitza mendira joateko aprobetxatzen zuten.

Aita zuten mendizalea, eta hura izan zen zaletu zituena. "Pentsa, ama lehenengo aldiz hona etorri zenean, aita mendi puntara eraman zuen handik itsasoa ikusten zela erakustera. Donostiako Alde Zaharretik mendi puntara; eta bitartean, gure amak Donostian egunero ikusten zuen itsasoa", kontatu du Maria Jesusek. Amak 21 urte zituen ezkondu zenean, eta segituan gelditu zen haurdun. "Koitudua", esan du Maria Angelesek beren amagatik. "Hona etorri eta denak zaintzea tokatu zitzaion: gure aita, aitona, izeba bat, hiru osaba eta gero gu denok". Agian horregatik, amak ez omen zien sekula ezkontzeko animorik eman; kontrakoa, "inozoak bakarrik" ezkontzen direla esaten omen zuen. Baita amari kasu egin ere: bederatzi anai-arrebetatik bakarra ezkondu zen, Maria Consuelo.

Umetan hasi eta bizitza guztian eutsi diote mendirako joerari; Euskal Herriko mendialdea ederkiz ezagutzeko aukera izan dute, beraz. Eta Maria Angelesen iritziz,

mendian ibitzen ikasteko, "Izarraitz bezalakorik ez". Izarraitzen ondo ibiltzen denak, Pirinioetan ibiltzeko arazorik ez lukeela izan behar dio. Mendi kuttuna, berriz, Aralar du; hura bezalako lekurik ez omen du topatu munduan. Hasieran gurasoekin edota lehengusuekin joan ohi ziren mendira; gerora, urte batzuez, Jose Mari anaiarekin; eta azkenean, askotan, ahizpak bakarrik. Ohikoena ez zen arren, etxean sekula ez zieten debekatu hala ibiltzea. "Eta behin Maria Jesusek gidatzeko baimena atera zuenean, akabo, Europa osoan zehar ibili ginen", esan du Maria Angelesek. "Jugoslaviaraino joan ginen kotxean". Mendiko botak eta motxila beti aldean eramaten zituzten badaezpada, eta beti topatzen zuten haientzako moduko mendiren bat.

Mendirako material ona erabiltzen zutela nabarmendu dute. "Aurren-aurrena abarkekin eta ferradun botekin ibiltzen ginen, baina gero Chiruca botekin. Garai hartan ez zituen jende askok erabiltzen", Maria Angelesen arabera. Eta Azkoitian mendirako praktikak edo praka babaroak jantzi zituzten lehenengo emakumeak ere beraiek izan zirela esan du. "Garai hartan neskak mendira gona zuria jantzita joaten ziren, baina niri leize zuloetan sartzea gustatzen zitzaidan, eta nola sartuko nintzen bada gonarekin. Ama jostuna zen, eta



berak josi zizkigun praktikak". Nahikoa komeria izaten zuten haiek ezkutatzen. "Praken gaintetik gona jantzita irteten ginen etxetik, inguruko bizilagunek ezer esan ez zezaten. Ordurako, Donostian-

eta erabiltzen zituzten, baina Azkoitian ez. Guk jantzi eta gero, gehiago ere hasi ziren jantzen".

Kobazuloetan sartzea ez ezik, eskalatzea ere gogoko zuen Maria Angelesek, "batez ere

rappel eginez jaistea". Amari, ordea, ez zitzaion gustatzen hori. "Hala ere, moldatzen ginen hura konturatu gabe ibiltzeko. Bizilagun bat tximiniak garbitzen ibiltzen zen, eta hark uzten zizkigun sokak. Anaiak gorputzari estu-estu lotuta jartzen zuen soka, eta hala irteten ginen etxetik". Eskiatzera ere asko joaten zirela esan du, bai Aralarrera eta bai Pirinioetara. Maria Jesusek garbi esan du, ordea: "Eskiatzeko tokirik onena, Baqueira".

20 urte zituela, Maria Angeles Donostira joan zen bizitzera. Osaba batek Arrieta gestoria zuen, eta han hasi zen lanean. Urteetan jardun zuen. "Espainiako gestoria inportanteenetakoa" zela dio, ordurako hogeitaka langile zituela, gehienak emakumeak. Ondo gogoan du gizonezkoek baino lan baldintza okerragoak zituztela, eta hori ezin zuela jasan. Langileen ordezkari izendatuta, emakumeen eskubideen alde gogor aritzen zela azaldu du.

Hain zuzen ere, Donostiako lagunekin egin zuen Pirinioetara lehendabiziko bidaiak. Orduan igo zen aurrenekoz Monte Perdidorra, Vignemalera (3.298 metro) eta Balaitusera (3.144 metro). Oporrak zituztenean joaten ziren Pirinioetara eta astebetean inguru pasatzen zuten han. Europara, berriz, bi edo hiru aste libre zituztenean joaten ziren. Beti kanpin dendan

egiten zuten lo. Lehenengo dendak abarketak egiteko oihalarekin egindakoak izaten zirela esan du Maria Jesusek; gerora, ordea, Frantzian eta Alemanian erositako dendak izan zituztela. "Eta denetan garrantzitsuena, lo zaku ona izatea", nabarmendu du. "Guk onak eduki izan ditugu".

Hara eta hona "erraz" ibili izan dira beti, nola goi mendietan, hala atzerrian. "Lasai ibili izan gara, beldurrik gabe, pentsamendu txarrik ere ez baikeneukan. Denekin fidatzen ginen gu; sekula ez genuen pentsatzen inork intentzio txarrik izan zezakeenik", adierazi du Maria Angelesekin. Lo ere "lasai asko" egiten zuten. "Garai hartan mendian edozein lekutan jar zitekeen kanpin denda, eta halaxe egiten genuen". Atzerrian ere ondo konpontzen ziren, ahizpa gazteenak ingelesa eta frantsesa bazekizkielako. Turismo ikasketak egin zituen hark, eta hura arduratzen zen bidaiak antolatzeaz.

Mendi altuagoetara igotzeko aukerarik ere sortu zitzaion Maria Angelesi. Behin, Donostian bulegoan lanean ari zela, gizonezko batzuk joan zitzaizkion beraiekin Himalaiara joan nahi zuen galdezka; eta beste behin, ahizpekin Chamonixen zegoela, Mont Blancera igotzeko proposamena egin zioten. "Goitik behera prestatutako bidaiak ziren, joan eta mendia igo besterik ez nukeen egin

beharko". Baina ez bata eta ez bestea, bi proposamenetako bat ere ez zuen onartu azkoitiarrak. "Nola joango nintzen haiekin, ezagutu ere ez nituen egiten eta. Nik mendiaz gozatzen nuen, baina anai-arreben eta lagunaren konpainian. Nire helburua sekula ez da izan ahalik eta tontorrik altuena egitea; niri gustatzen zitzaidana zen leku berriak ezagutzea, hangoak eta hemengoak, altuagoak eta baxuagoak, baina nik aukeratutako konpainian. Sekula ez dut amestu zortzimilako bat egitearekin edo mendizale profesionala izatearekin; nik beste modu batera gozatu izan dut mendiaz".

Ikuskerara horrekin bat, Himalaiara joateari baino garrantzia handiagoa eman izan diote herrian mendizaletasuna sustatzeari, eta beren aletxoak jarri zuten Anaitasun Mendi Bazkunaren lehendabiziko urteetan. Esate baterako, bazkideen kuotak Encarnita ahizpak jasotzen zituen dendan, eta mendi bazkunaren sortzaileek herriko mendizale onenaren izendapena eman zioten horregatik. "Lagun talde bat hasi zen lanean, nahikoa poliki, baina gerora indar handia hartu zuela elkarrekin". Maria Angelesekin gogoan du "kolpetik ehundik gora bazkide" egin zirela. "Txangoak edo ibilaldiak antolatzeko Gobernadoreari esan behar izaten zitzaion. Maria Jesusek egiten zituen

paperak, udalean egiten baitzuen lan". Ibilaldi neurtuak egiten hasi zirela esan du, eta jendetzak hartzen zuela parte. Geroago, Zazpi Kurutze antolatzen hasi ziren, lau urtetik behin hori. Eta umeentzako kanpaldiak ere antolatzen zituzten, Larraskandan, Martirietan eta abar. "Horiek guztiek mendizaletasunari bultzada eman zioten".

Baina antolatzea bakarrik ez, beraiek ere gogoko zuten goi mendiko kanpaldietara joatea eta parte hartzea. Federatuta zeudenez, Espainia guztian antolatzen zituzten kanpamentuetara joateko aukera izaten zuten. Maria Angelesek kontatu du Asturiasko mendietan gertatu zitzaizaien pasadizoa:

"Kanpamentuetako azken egunean festa egitea izaten zen ohitura, eta Asturiasen sagardo festa egin genuen. Gustura, gaiteroekin argazkia eta guzti atera genuen hiru ahizpak. Egunkarian azaldu ginen gero".

Joaten ziren lekura joaten zirela, segituan nabarmentzen zirela esan dute. *Las vascas* ezagunak ziren bazter guztietan, azentuagatik eta neska bakarrenetakoak izaten zirelako. "Gizonen artean ibiltzera ohituta geunden, eta esan beharra dago beti errespetuz tratatu izan gintuztela", nabarmendu du Maria Angelesek. "Mendizaleen artean harreman oso ona genuen". ■■■

KAIKU



## Kaiku

### Urola Kostako baserritar familien esnea

**K**aiku proiektua abeltzaintza-familiek osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagotik konpromiso sendoa du sektorearekin. Horri esker, abeltzain familiek beren jarduera garatzen jarrai dezakete, maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko inguruarentzat funtsezkoa den sektorean, ekonomia zirkularra eta herrietako lanpostuen garapena sustatuz.

Kaikuko abeltzain-familia horietako bat Zestoako Joxe Ramón eta Garikoitzen familia da.

Ahalik eta ballabide gehien aprobetxatzen zentratu dira buruaskiak izateko eta behiak modu erabat naturalean elikatzeko: fabrika biki bat jarri dute baserrian, non zerealak ehotzen eta zapaltzen dituzten, Zestoako larreetan lantzen duten bazka osatzeko. "Ongari naturalarekin lantzen dugu lurra eta bioaniztasuna errespetatzen dugu produktu kimikorik erabili gabe. Gure lan egiteko modua jasangarria da ingurumenarekin eta horretaz harro gaude" dio Garikoitzek.

Joxe Ramón eta Garikoitzena bezalako Kaikuko familia-abeltzainen lanari esker, hurbileko produktua lortzen dugu, Urola Kostan bizi diren familiek ekoiztatzea: kalitate oneneko eta zapora handiko esnea. QR kode hau eskaneatuz gero, zure inguruan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku Km0 ekoizpen arduratsuko brik-esne bakoitzaren atzean dauden familiek ezagutu ahaliko dituzu.

EZAGUTU



nortzuk garen **KAIKUKO BASERRITAR FAMILIAK** eta zein **HURBIL** gauden zuek

**IRABAZI URTEBETEKO ESNEA DOAN.**





# Zezenak afizio

Berrosueta (Azpeitia) baserritik Azkoitiko mugara arteko larreetan ditu zezenak Josu Uriak (Loiola, Azpeitia, 1974). Egun, baserria eraberritzen ari dira, eta Azkoitian bizi da Uria. Txiki-txikitatik gustatu izan zaio ganadua, eta gaur egun Santa Coloma arrazako buruak ditu.

Testua eta argazkiak: **Nerea Uranga.**





**PLAZA**

Zezenak eta behiak prestatzeko plaza bat dauka eraikita Berrosueta baserriaren ondoan Josu Uriak (argazkian). Noizik eta behin, uztai eta errektari txapelketetan ibiltzen diren Azkoitiko eta Azpeitiko gazte batzuk joan ohi dira hara entrenatzera. Uriak esan duenez, torero gazte bat edo bestek ere eskatu izan dio plaza entrenatzeko.

**1995. URTETIK**

Zezenak hazten eta hezten 1995.ean hasi zen Josu Uria. "Aurreneko behia, bakarra, Asentzio *Sakari* hartu nion. Jolaserako ekarri nuen hura. Lehenengo zezena, berriz, Zelai Luze ganadutegiko Joxeri [Oñederra] hartu nion; elegantea zezena", dio Uriak. Egun, Santa Coloma arrazako 24 buru ditu.



**TALDEAN**

Elkarrekin hazitako zezen txikiak taldean, elkarren ondoan, ibili ohi direla azaldu du Uriak. Belardian ere batera, elkarren babesean, egon ohi dira.



### **SANTA COLOMA ARRAZAKOAK**

Aurreneko Santa Coloma arrazako zezenak Extremaduratik (Espainia) ekarri zituen Berrosuetara, eta arraza horretako buruak hazten ditu. "Hiru buru izan nituen aurrena, eta haiekin hasi nintzen poliki-poliki. Azkena ekarri ditudan buruak, berriz, Zaragozatik ekarri ditut, odola nahasteko; bestela, txikiak-eta gelditzen dira. Hemen inguruan arraza honekin jarduten duen ganaduzalerik ez dago, eta horregatik ekartzen ditut kanpotik", azaldu du.



### **GANAJATEKOA**

Ganaduari ematen dion jatekoaren prezioa azken urteetan asko igo dela Uriak, baina berak zezenak gustuko ditu, eta haiek hazteko zaletasunari heltzen dio. "Afizio guztiak izaten dira garestiak? Zein da afizio merkea?", galdetu du. Ganaduari jaten emateko garaian laguntzaile gazteak ere inguruan ibiltzen ditu Uriak.





### LAGUNTZAILE GAZTEAK

Enaitz Gonzalez *Egurrola*, Julen Ruiz Sudupe *Pio* eta Xanet Uria (Josu Uriaren semea) azkoitiar gazteak Berrosuetako zezenei eta behiei jaten ematen. Hirurak dira zezenzaleak, eta gustura ibiltzen dira haiek zaintzen eta ganajatekoa ematen.

### 24 ABELBURU

11 abelburu kendu berri ditu Uriak, eta 24 buru dauzka gaur egun; denak lau urtetik beherakoak. "Hamazazpi urte neurekin egondako behi bat eraman nuen azkena hiltegiara, baita beste zezen beltz bat ere. Beti ematen du pena kendu beharrak, baina zer egingo dut bada? Lekua izango banu, ez nuke abelbururik kenduko, baina orain negua dator, eta ez daukat haiek edukitzeko tokirik", adierazi du ganaduzaleak. ■■■



# Giza eskubideak, norentzat?

---

**TESTUA:**

SARA RODRIGUEZ

Ba omen dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala izeneko akordio moduko bat. Mundu osoan babestu behar diren giza eskubideak barne biltzen dituen hitzarmena da. Zerbait entzun izan ohi dugu, berez ditugun eskubide horiei buruz. Hor daudela ere badakigu, baita ez direla betetzen ere. "Gizaki guztiak aske jaiotzen dira, duintasunetan eta eskubideetan berdinak, eta elkarren artean senidetasunez jokatu behar dute". Era horretan hasten da, 30 artikuluk osatzen duten eskubideen zerrenda. "Bizitzaren, askatasunaren eta segurtasunaren" eskubideak zerrendatzen jarraitzen du. "Arrazak, koloreak, sexuak, hizkuntzak, erlijioak, iritzi politikoak, jatorri nazionalak edo sozialak, posizio ekonomikoak... ez dutela inondik inora deklarazio honetan jasotzen diren eskubideen bereizketarik baldintzatuko", hori ere esaten du adierazpenak.

Horren aurrean, adierazpen horrek esaten duenaren arabera, guztiok bizimodu duin bat eskuratu genezake, ezta? Tamalez, ordea, badakigu hori ez dela horrela. Botere burgesak sortutako berezko eskubide horiek, zuriketa hutsa dira.

Oraingoan, Koldo Arribillaga 55 urteko gizon gasteiztarraren hilketari buruz hitz egin nahi dut. Koldo 2019an etxetik kaleratu zuten hipoteka ezin zuela ordaindu argudiatuta. Gasteizko Gizarte Zerbitzuek ez zioten bestelako etxebizitzarik eskaini; beraz, taberna izandako lokal batean bizi zen. Egoera horretan egoteagatik eta etxebizitza duin bat eskuratu ezean, Osakidetzak behar zuen ebakuntzarako eskubidea deuseztatu zion. "Ebakuntza ondorengoa igarotzeko etxebizitza egokirik ez" zuela argudiatu zuten. Irailaren 8an hil zen bihotzeko baten ondorioz, Gasteizko Txagorritxu ospitalean.

Gaur egun dugun sistema kapitalistaren ondorioz, biolentzia estrukturala eguneroko ogia da. Boteredunek, beren boterea betikotzeko, ezinbestekoa dute langile klasearen aurkako biolentzia forma guztiak martxan izatea, hala nola lan esplotazioa, etxegabetzeak, kontrol soziala eta mota guztietako ankerkeri instituzionalak. Koldo kaleratua izan zen, bazterkeria egoeran aurkitzen zen, eta erakundeek (haiek ere Koldoren egoeraren errudun) beste aldera begiratzen jarraitu zuten. Hori horrela, langileria babesgabetasun zein ezegonkortasun egoera jarrai batean bizitzera kondenatuta dago.


Horren aurrean, klase elkartasunaren aldarria egitea ezinbestekoa zait. Langilieriaren kontrolpeko guneak behar ditugu, eta okupazioari ekin. Klase borrokaz eta langile kontzientziaz aritzea ezinbestekoa dugu egungo sistema kapitalistarekin amaitzeko. Beraz, langileon antolakuntzari ekin! ■■■

**EGUN DUGUN SISTEMA  
KAPITALISTAREN  
ONDORIOZ, BIOLENTZIA  
ESTRUKTURALA  
EGUNEROKO OGIA DA**



# AZKOITIAK

*bat gehiago*



**BATU MAXIXATZENEN PROIEKTURA,  
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: [bazkide@ukt.eus](mailto:bazkide@ukt.eus) - 943-81 38 41

# Ez gara hain onak



AITOR ARRUTI REZABAL

**B**izi gera pobre eremu latz honetan, ez gera hain onak benetan", idatzi zuen Gabriel Arestik poema batean. Arrazoi zuela esan liteke, uste baino pobreago garela, ez garela uste genuen bezain onak, gure jokabideari begira jarrita. Azkenaldian, Euskal Herriko biztanleen artean espezie bat da ari da harrotzen: askefiloa. Azken ikerketen arabera, bi eratako askefiloak daude: euskararen arloko askefilo linguistikoak eta pandemiaren inguruko askefilo birikoak.

Askefiloak beti du arrazoi, eta arrazoa ez ezik eskubidea ere bai. Askatasun zalea izanik, eskubidea du inork hari ezer ez inposatzeko. Esate baterako, askefilo linguistikoak eskubidea du gaztelaniaz soilik jakiteko, askefilo birikoak edonon maskararik gabe ibiltzeko eskubidea duen hein berean. Bost axola ondorio kolateralekin zeinen eskubideak zapaltzen dituen.

Askefiloa biktima da beti, inoiz ez borrero. Askefilo linguistikoa jasaile da edozein lekutan berea ez den hizkuntza batean hitz egiten diotenean, askefilo birikoa COVID-19aren sintomak dituelako PCRa egiteko eskatzen diotenean bezalaxe. Aske jokatzeko eskubidearen aurkako eraso zuzenak dira horiek, nola bata, hala bestea.

Askefiloak badaki gainerako jendea zeinen oker dabilen. Askefilo linguistikoari alferrik aipatuko dizkiote hizkuntza bat baino gehiago ikastearen onurak, nork bere herrikoa ikastetik hasita, hark bai baitaki zein den ikasi beharreko hizkuntza, edonon balio behar duena. Askefilo birikoa ez dute engainatuko aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikulu egiaztagarriekin, are gutxiago koronabirusa eragiten ari den triskantza ziurtatzen duen datu oldearekin. Askefiloari ez diote adarrik joko, inguruko jendeak berak dakien egia onartu nahi ez baldin badu, hor konpon.

Espezie berriaren garapena ikertzen jarraituz gero, jabetuko gara askefiloa kalteko bihurtzen dela, hizkuntzak nahiz jendea gaixotzera eta hiltzera kondena ditzakeelako. Hori guztia ez da haren ardura, ordea. Hizkuntza bat galtzea edo pertsonak kutsatzea ezin da izan askefiloaren borondatea behartzeko arrazoi, akabo ba! ■

**ASKEFILOAK  
BETI DU ARRAZOI,  
ETA ARRAZOA  
EZ EZIK ESKUBIDEA  
ERE BAI**

## Bertsoa paperean

Gaia: Bidasoa.  
Bertsolaria: Unai Izagirre  
Etxeberria.  
Doinua: Ai hori begi ederra A.

Batzuentzat dena muga besteentzat da helmuga horrek txarretik zer du ba? Norena dugu Santiagoko zubi bueltako ardura? Lehen bazen nahiko duda zubi behar zuen hura harresi bilakatu da.

Azken hiletan jazoa albisteetan jaso ez ote da eraso? bizi duin bat bilatu nahia baldin bada arazoa, ene gure Bidasoa nahiz ta ez den itsasoa zuria da marrazoa.



**EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA**

Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.



*Euskadi,  
Euzkadi*



# BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea      sukaldea  
bainugela      ...  
leihoak  
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



## Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · [www.biyona.net](http://www.biyona.net)



**MILAR  
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak

  
**Cooking  
& Chef**  
BUKALDE GUNEĀ



Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • [www.milar.eus](http://www.milar.eus)



**FK**

**KOPISTEGIA**

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxes: 943-85 20 91

[j.artetxe@fkkopistegia.es](mailto:j.artetxe@fkkopistegia.es)